

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

15 positibo berri
2.351 positibo guztira*
*Hernanin 67, Astigarragan 23

NAFARROAN

3 positibo berri
528 hildako
6 UCIIn, EAEn
5.488 positibo guztira
Sendatuak: EAE 18.305

Izaroren kontzertua eta 'Trashhhhh!' antzezlana, uztaileko egitarau berezian

Artea, natura, zinea, musika, dantza, yoga eta gastronomia bilduko ditu Chillida Lekuk, udarako ekintza berezietan.

HERNANI CHILLIDA LEKU

Duela bi aste pasatxo, ekainaren 20an, ireki zituen ateak berriro Chillida Leku museoak, dantza emanaldi berezi eta guzti, Myriam Pérezen eta Nagore Legarretaren eskutik, udarako solstizioa ospatzeko. Eta orain, udaran, ez du etenik izango Chillida Lekuko jardunak: egitarau berezia prestatu dute, uztaileko eta abuzturako, makina bat emanaldi eta ekintzarekin. Horien artean daude, Izaro Andres abeslariak eskainiko duen kontzertua, hilaren 30ean; eta Zero en Conducta konpainiaren *Trashhhhh!* antzezlana, 26an.

Ekintza ezberdinen bitartez, Chillida Lekuk bilduko ditu natura, zinea, musika, dantza, yoga eta gastronomia. Asmoa da, «bertako jendeari udaraz beste modu batera gozatzeko aukera ugari eskaintzea».

Yoga klaseak, ilunabarrak, gaueko bisitak, zine gauak...

Astero egingo dituzte, ekintza horietako batzuk. Ostiraletan, hasteko, gaueko bisita eta afaria egin ahal izango da, 19:00etan hasita. «Museoa gauez irekiko dugu, aparteko esperientzia eskaintzeko», azaldu dute. Eta ondoren, afaria eskainiko diete, Lurra Cafeko terrazan.

Larunbatetan, berriz, zita bi-koitza izango da. Goizetan, hasteko, yoga saioak egingo dituzte, eskulturen artean. Ordubetekoak izango dira saioak, 09:00etan hasita, eta ondoren, *brunch* edo gosaria egingo dute Lurra Cafén. Gainera, egun osorako sarrera



'Iceberg' dantza emanaldiarekin ireki zuten berriro Chillida Leku museoa, pandemiaren ondoren, ekainaren 20an.

librea izango dute gero, parte-hartzaileek.

Eta larunbat arratsaldetan, Kutxa Kultur Ilunabarrak antolatutako, 19:00etan. «Artea, musika eta gastronomia batu-ko dira, esperientzia sensoriala eskaintzeko», azaldu dute. Horrela, 19:00etatik aurrera museoa bisitatu, eta 20:30etan kontzertu batez gozatzeko dute bertaratuek. Eta ondoren, afaria izango dute Lurra Cafén.

Zine gauak ere egingo dituzte Chillida Lekun, uztailearen 16, 17, 18 eta 19an. A Contracorriente Films zine-ekoizlearekin elkarlanean, estreinatu berri diren lau film eskainiko dituzte, aire librean. Arratsaldeko 19:00etan irekiko dituzte ateak, museoa bisitatzeko; eta 22:00etan hasiko dira pelikulak.

Izaroren kontzertua, uztailearen 30ean

Hilaren bukaeran izango da Chillida Lekuko emanaldi berezietako bat. Kontzertua eskainiko du Izaro Andres abeslariak, museoko zelaian, hilaren 30ean. 20:30etan hasiko da kontzer-

tua, baina 19:00etan sartu ahal izango dute bisitariak, museoa bisitatzeko. Izarok udaran eskainiko dituen sei kontzertu berezietako bat izango da Chillida Lekukoa.

Beste emanaldi berezi bat, Zero en Conducta antzerki konpainiak eskainiko du museoan: *Trashhhhh!* txotxongilo-ikuskitzuna, uztailearen 26an. Espainia, Alemania, Italia eta Herbeheretan hainbat emanaldi eskainita, Bartzelonako Mercé jaietarako aukeratu zuten ikuskizuna, eta kaleko ikuskizun onenaren saria jaso zuen Haifako Nazioarteko Jaialdian, Israelen. Eguerdiko 12:00etan hasiko da emanaldia, Chillida Lekun.

Izpigramen tailerra eta dantza tailerra, bi hilabeteetan

Bi tailer ere egingo dituzte udaran. Batetik, izpigramen tailerra eskainiko du Nagore Legarreta argazkilaria hernaniarrak, uztailearen 18an eta abuztuaren 22an. Goizeko 11:00etan hasita, familia tailerrak dira, 6-12 urteko haurrei zuzenduta, eta eskultoretan argiaren presentziak jabe-

tzea izango du helburu, teknika primitiboak eta analogikoak erabiltzea horretarako.

Eta bestetik, dantza tailerra eskainiko du Myriam Pérezek, uztailearen 25ean eta abuztuaren 29an. Familientzako tailerra izango da, 6-12 urtekoei zuzenduta hori ere. Eta 11:00etan hasita, asmoa izango da Chillidaren eskulturak gorputzarekin sentitu eta berak sortutako espazioak betetzea.

Eta azkenik, abuztuaren 12tik 13rako gauean, izarren behaketa egingo dute, Pertseidak ikusteko, Aranzadiko adituen eskutik. 23:00etatik 03:00etara izango da hori, baina 19:00etan irekiko dute museoa, bisitarako.

Sarrerak, interneten salgai

Jarduera guztietarako sarrerak, internet bidez eskuratu daitezke, museochillidaleku.com web orrian; eta bertan dago guztiei buruzko informazio gehiago ere.

Uztailearen 25eko dantza tailerrarako, eta abuztuaren 22ko izpigramen tailerrarako, Hernaniko udaletxean salduko dituzte sarrera guztiak. K

'Small foot' filma, larunbat honetan

EREÑOTZU UDA KULTURALA

Zinea aire librean ikusteko aukera izango da larunbat honetan, Ereñotzun. Izan ere, *Small foot* pelikula jarriko dute euskeraz, gaueko 22:00etan hasita, Ereñotzuko plazan. Uda Kulturalaren hirugarren ekintza izango da, eta pelikula gozatu nahi duenak, izena eman behar du alde aurretik, 688 780 356 telefonoan.

Etxebarrieta eta Izagirre bihar, Tilosetan

HERNANI EH BILDU

Ekitaldia egingo du EH Bilduk bihar, Tilosetan, arratsaldeko 19:00etan. Bertan izango dira Oihana Etxebarrieta legebiltzarkidea, eta Juan Karlos Izagirre batzarkidea, Eusko Legebiltzar-erako hauteskunderen atarian, datozen lau urteetarako eskaintza politikoa aurkezten.

Doako yoga saioa bihar, Ave Marian

HERNANI YOGA

Yoga saio irekia izango da bihar arratsaldean, Ave Maria parkean. Josune Eizmendik eskainiko du, 19:00etan hasita, eta doakoa izango da, gerturatu nahi duten guztientzat. Esterilla hartu eta bertaratzerantz animatu ditu denak, Eizmendik.

Lau hernaniar, gaurko partiduetan

HERNANI ESKU PELOTA

Zikuñaga Papelera Torneoarekin jarraituko dute gaur, arratsaldeko 18:00etan, Hernaniko frontoian; eta hiru partiduetan izango dira jokoan. Horietan ariko dira lau hernaniar: Arluziaga eta Alegria, elkarrekin; Manterola, Intzako Urdanpilletarekin; eta Urkizu, Epleko Odriozolarekin.

ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

ANTZIOLA
OKINDEGIA

gse
Asesorak

Aholkularitza eta
tramitazio
zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telefonoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

Catalana Occidente
Aseguruak

BAUTISTA
BIURRARENA
ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

Gerizpe
Kafetegia-Okindegia

682 156 795
Kale nagusia 5, Astigarraga

GAUR Giro eguzkitsua izango dugu gaur, eta bero haundiagoa egingo du. Udarako eguraldia izango da, eta eguzkia izango da nagusi, arratsaldean bero-laino batzuk sortuko diren arren. Zaparradaren bat ere bota dezake orduan. **Min.14° / Max.25°**

BIHAR Udarako giroa izango dugu berrito, baina laino gehiago agertuko dira zeruan. Goizean giro lasaia izango dugu, tarteka lainotuta; eta arratsaldean bero-lainoak ugarituko dira. Baliteke zaparradaren bat botatzea, bihar ere. **Min.17° / Max.24°**

ARGITARATZAILEA **DOBERA** EUSKARA ELKARTEA **LAGUNTZAILEAK** **Hernaniko Udala** **Astigarragako Udala** **Dobera Eskubaloia** **GOZUEKANO UDALA** **ARANOKO UDALA**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Upel Pelota enpresako esku pelotarietako batzuk eta Ikatza tabernako jabeak, tabernaren kanpoaldean.

Aurtengo taldea aurkeztu du Upelek, Ojuel eta Santxez tartean direla

Astigarragako Ikatza tabernan egin zuten 2020 denboraldiko aurkezpena. Bertan izan ziren Xala, Retegi Bi, Gorka eta Olazabal, besteak beste.

ASTIGARRAGA-HERNANI ESKU PELOTA

Denboraldi berri bati ekiteko prest dago Upel Pelota enpresa, eta Astigarragako Ikatza tabernan egin zuen aurtengo taldearen aurkezpena, joan den ostiralean. Horien artean izango dira, besteak beste, bailarako bi esku pelotari: Paul Ojuel hernaniarra, eta Jokin Santxez as-

tigartarra. Eta haiekin batera beste hainbat, maila onenean profesional izandakoak batzuk: Retegi Bi, Xala, Gorka, Olazabal, Pascual, Azanza eta Goñi egon ziren aurkezpenean. Gainerakoek, ezin izan zuten bertan egon, segurtasun neurriak bermatze aldera.

«COVID-19ak markatu duen urte arraro honetan, helburua

izango da pelota eramatea herri guztietara, betiere osasungintzako arauak errespetatuz», nabarmendu zuten aurkezpenean.

Taldearen babesleetako bat izango da Ikatza, eta horregatik egin zuten aurkezpena bertan. «Esker bereziak eman behar dizkiegu gure babesleei, beraien laguntza ezinbestekoa delako, ziurgabetasuna nagusi den une hauetan: Erki eraikuntzak, Hostal Don Javier, Revilan, Itago, Color Vinilo eta Ikatza taberna», nabarmendu zuten, enpresako arduradunek. **K**

'Donostia rebelde' entsaioa aurkeztu du Miguel Usabiagak, Donostiako Azokan

Igandera arte egongo da hernaniarraren azken lana, Ediciones Irreverentes argitaletxearen postuan. Rara Avis saria jaso du Usabiagak.

HERNANI LITERATURA

Donostiako Liburu Azoka ari da izaten egun hauetan, aurreko astean hasi eta datorren igandera arte, Gipuzkoa Plazan. Ediciones Irreverentes argitaletxeak jarri du postuetako bat, eta bertan aurkeztu du Miguel Usabiaga idazle hernaniarrak, bere azkeneko lana: *Donostia rebelde* entsaioa. Postuan izan zen Usabiaga, joan den igandean, irakurleekin solasean eta liburuak sinatzen.

VI. Rara Avis Entsaio Saria jaso du idazle hernaniarrak dagoeneko, *Donostia rebelde* lanarekin. Bertan bildu ditu, Donostian XX. mendearen aurreneko

erdian iraultzaile izan ziren pertsona eta tokiak. Irakurtzeko liburu bat eta gida bat da aldi berean, hirian barrena paseatu eta liburuak erakusten diguna eza-gutzea ahalbidetzen duena. Usabiagak argitara atera nahi izan ditu pertsonaia batzuk, historiak ahaztu dituenak, baina Donostiaren historian protagonismo handia izan zutenak: Larrañaga, Asarta, Isasa, Carrera...

Donostiako hainbat mapa ere bildu ditu Usabiagak, berak egindakoak, arkitektoa ere badelako hernaniarra. Eta horietan markatu ditu, hiriaren borroka iraultzailean garrantzitsu izan ziren guneak.

«Toki horiei eta pertsonaia



iraultzaileei buruz daukadan ezagutzak lagundu dit entsaioa idazten, nire aitaren ahotik entzuteko pribilegioa izan nuelako. Errebeldia haren parte izan zen nire aita; Donostiako kaleetatik, mundua aldatu nahi zuten», azaldu du Usabiagak. **K**



Hernani Eskubaloia Taldeko jokalaritza bat, aurreko denboraldiko partiduan.

Eskubaloia taldean izena emateko epea zabalik, datorren denboraldirako

Aurrekoa espero baino lehenago bukatu ondoren, hurrengoari begira jarri da Hernani Eskubaloia Taldea, dagoeneko.

HERNANI ESKUBALOIA

Kirol guztietan bezala, espero baino lehenago bukatu zen eskubaloian ere, 2019-2020 denboraldia, Koronabirusaren pandemiak eraginda. Baina aurreko kontuak atzean utzi, eta datorren denboraldiari begira jarri da Hernani Eskubaloia Taldea, «2020-2021 sasoia aurrera ateratzeko asmo berrituekin».

Oraindik ez dakite nolako

izango den datorren denboraldia, entrenamenduei eta txapelketei dagokienez, baina hasi dira lanean: «denboraldi berriaren gorabeherak argitzen doazen bitartean, gure antolotzeari ekin diogu, eta horregatik egin nahi diegu deia, eskubaloian aritu nahi duten neska-mutil hernaniarrei, gurera hurbildu daitezten, eta Hernani Eskubaloia Taldean izena eman dezaten», azaldu dute.

Beraz, zabalik dago taldearen izena emateko epea, eta horretarako, taldearen web orrian dagoen inprimakia bete behar da: www.hernanieskubaloia.eus.

Izena ematen duten guztiekin, harremanetan jarriko dira taldekoak, aurrerago. **K**



JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako artikulak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko saiaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Urruntzen

Urruntzen joan gara zeruko jainkoetatik, arbasoen jakintzatik, lurreko loturetatik. Urruntzen joan gara hurkoen besarkadetatik, elkarri laguntzeagatik,

beste mundu bat amesteagatik. Urruntzen joan gara maskaren esklabo bihurtzeraino.

Josu Arrieta Iraola

IRAGARKI MERKEAK

Udaran zerbitzari lanetarako norbait behar da Hernaniko taberna batean, esperientziarekin.

Bidalai CV-a: aeurumea@gmail.com / Deitu: 695 788 981

Neska euskalduna haurrak zaindu eta klase partikularrik emateko prest. Deitu: 618 119 781 Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko karneta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643** LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidalai c.v. rrrhh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

Itziarroyo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)